

Euskarazko kazetaritza politikoaren hastapenak: *Le Réveil Basque*-ren ekarpen aitzindaria (1886-1894)

Imanol Murua Uria
Kazetaritza Saila, UPV/EHU

Le Réveil Basque astekari errepublikazaleak (1886-1894) propaganda politikoa egitea zuen lehentasun, bere garaiko hedabide askok bezala, baina kazetaritza ere egin zuen, informazioa ere landu zuen, bai frantsesez eta bai euskaraz. Denboran iraun egin zuten informazio orokorreko hedabideen artean lehena izan zen euskarari toki duina ematen. Arlo politikoko kazetaritza izan zen bere indargunea: Frantziako Hirugarren Errepublikako egunerokotasunari buruzko informazio xehea eman zuen, Euskal Herritik begiratuta, euskaraz ordura arte inork egin ez zuen eran. *Le Réveil Basque*-ren eta bere aurreko zein bere garaiko hedabideen bildumen azterketa hemerografikoan oinarrituta, euskarazko kazetaritza politikoan aitzindaria izan zela erakusten du artikulu honek.

GAKO-HITZAK: *Le Réveil Basque* · Euskarazko kazetaritzaren historia · Kazetaritza politikoa · XIX. mendeko kazetaritza.

Beginnings of political journalism in Basque: the pioneering contribution of *Le Réveil Basque* (1886-1894)

The priority of the weekly newspaper *Le Réveil Basque* (1886-1894) was political propaganda, as many of the media of its time, but it also did journalism, it also worked on information, both in French and Basque. It was the first general information media, among the media that survived over time, giving the Basque language a decent treatment. Its strength was political journalism: it provided detailed information on events of the Third French Republic from a Basque perspective, in a way that no one had ever done before in Basque. Based on a hemerographic analysis of *Le Réveil Basque* and the media collections of its time, this article shows that it was pioneering in political journalism written in Basque.

KEY WORDS: *Le Réveil Basque* · History of Journalism in Basque · Political Journalism · 19th Century Journalism.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5076>

Jasotze-data: 2023-12-13 Onartze-data: 2024-02-13

1. Sarrera


Le Réveil Basque ez zen izan euskarari lekua egin zion lehen hedabidea, baina bai informazio orokorreko kazetaritza euskaraz modu jarraituan eta iraunkortasun esanguratsu batez egin zuen lehena. Ia berrogei urte lehenagokoa da euskarazko lehen hedabidea, Agosti Xahoren *Uscal Herrico Gaseta* (Baiona, 1848), baina bi zenbaki baino ez zituen argitaratu eta, albiste gutxi batzuk plazaratu zituen arren, propaganda politikorako tresna izan zen informazio-hedabidea baino gehiago. XIX. mendearen erdialdetik aurrera argitaratu ziren euskarazko almanakak ere, eta haietako batzuek informaziodun testu gutxi batzuk plazaratu zituzten, baina, urtean behingo argitalpenak izanik, ez zuten unean uneko albisterik ematen, ez zuten kazetaritza egiten.

Le Réveil baino sei urte lehenago jaio zen Jose Manterolaren *Euskal-Erria* hamabostekaria (Donostia, 1880-1918)), eta euskarazko kazetaritza-lan gutxi batzuk argitaratu zituen gaztelaniazko askoz ugariagoen artean, baina ez zen informazio orokorrekoa, kulturakoa baizik, eta kazetaritzari baino askoz leku handiagoa egin zion ikerketari, dibulgazioari eta sorkuntzari. *Le Réveil* baino urtebete lehenago sortu zen Martin Bizkailuzen *Escualdun Gazeta* Kalifornian (Los Angeles, 1885), euskara hutsez argitaratu zen, eta informazio orokorrekoa zen, baina hiru zenbaki baino ez zituen plazaratu. Jean Pierre Goytinoren *California'ko Eskual Herria*-k bizialdi luzeagoa eta oparagoa izan zuen, baina *Le Réveil* baino geroago sortu zen (Los Angeles, 1893-1898).

Le Réveil Basque astekaria 1886ko uztailan jaio zen, hauteskunde-helburu argiekin, Henry Berdoly hautagai errepublikazalearen aldeko kanpaina egiteko. Paukeo prefeturak, Behe Pirinioetako alderdi errepublikazaleak eta Berdolyk berak adostu bide zuten aldizkariaren sortzea eta, aurrerantzean, Berdoly bera izan zen berripaperaren «nagusia» (Altzibar, 2008, 24. or.). Sei astez argitaratu ostean etena egin zuen aldizkariak abuztuan, baina azaroan berriro plazaratzeari ekin zion.

Jakina da *Eskualduna* aldizkari *xuria* *Le Réveil* gorriaren erreakzioz jaio zela, 1887ko martxoan, Louis Etxeberri politikari bonapartistaren eskutik, hauteskunde-helburuekin baita ere. Lehen bost hilabeteetan hamabostekaria izan zen, baina, abuztutik aurrera, astero plazaratu zen. 1944ra arte iraun zuen.

Elkarren aurkari amorratu izan ziren *Le Réveil* eta *Eskualduna*, bien arteko xextra publikoak garratzak eta ugariak izan ziren, baina elkarren antz handia ere bazuten. Bien lehentasuna propaganda politikoa zen, baina informazioa ere plazaratzen zuten. Garai hartako egunkari askok bezala, lau orrialde zituzten: azalean editorial kutsuko artikulua eta albiste garrantzitsuren bat, eta gainerako orrialdeetan Frantziako berri politikoak, Euskal Herriko tokiko albisteak, mundu zabaleko informazio laburrak, laborarientzako testu dibulgatiboak, denbora-pasako irakurgaiak eta, besteak beste, liburuen atalak —historiko-politikoak *Le Réveil*-en eta erlijiosoak *Eskualduna*-n—. Eskema ez zen finkoa, baina osagai horiek jasotzen zituzten gehienetan batak zein besteak 1880ko eta 1890eko hamarkadetako zenbakietan. Biak ziren elebidunak eta, lehen urteetan, bietan ziren ugariagoak frantsesezko testuak. Hala ere, *Eskualduna*-k sorreratik eman zion *Le Réveil*-ek baino lehentasun handiagoa euskarari.



1. irudia. *Le Réveil Basque* aldizkariaren lehen zenbakiaren azala, 1886ko uztailaren 11n argitaratua (Bilketa, Euskal funtsen ataritik hartua).

Lehen sei zenbakiko aro laburrean, «Mauleko kantonamenduko interesen organua» azpigitulua zekarren mantxeta nagusiaren pean *Le Réveil*-ek, baina bigarren aroan ez zekarren halako zehaztapenik. Erredakzioa eta inprimategia Euskal Herritik kanpo zituen, prefeturak egoitza zuen hirian: Pauen. *L'Independent des Basses Pyrénées* egunkari errepublikazalearen tailerlean inprimatzen zen. Lankidetzaz ez zen inprimategira mugatzen: *Le Réveil*-eko frantsesezko zenbait artikulu *L'Independent*-etik hartuak ziren.

Berdoly Uharteko bere jauregian bizi zelarik, Candau zuberotarra zen *Le Réveil*-en kudeatzailea eta kazetari arduraduna, ofizialki bederen. Candauen izena 1887ko ekainetik ageri da mantxetaren azpiko kredituetan: *redacteur-gerant* zen, erredaktore-kudeatzailea. Idatzi ere egiten zuen, frantsesez nahiz euskaraz. Abizen hutsez sinatzen zituen artikuluak, eta abizena baino ez zaigu iritsi. Berdolyk ez zekien euskararik eta, Altzibarren hitzetan (2008, 26. or.), «horretarako zeukan Candau».

Paueko prefeturako funtzionario Gabriel Davenet-ek ere izan zuen zerikusirik *Le Réveil*-eko lanetan. Lafitteren arabera (1971, 24. or.), berak kudeatzen zuen kazeta. Hedabide kontserbadoreetan aipatu izan zuten moduagatik ere, Altzibarrek (2008, 21. or.) uste du *xuriek* Davenet jotzen zutela «kazetaren asmatzaile eta eragile nagusizat». Izan ere, *Eskualduna* eta *Le Vrai Basque* aldizkariak behin baino gehiagotan jo izan zuten Daveneten aurka *Le Réveil*-i kritika egitean, kazeta errepublikazalean argitaratutako edukien arduraduna zela iradokiz. Dena den, *Le*

Réveil-ek askotan aipatu zuen Davenet, baina beti prefeturako kontseilari gisa, inoiz ez *Le Réveil*-en arduradun edo erredaktore gisa.

Le Réveil-eko euskarazko edukien egileei buruz ezer gutxi dakigu, artikulu gehienak sinatu gabeak zirenez. Euskarazko testuak maiztasunez sinatu zituen bakarra, Candau kudeatzaileaz gain, abizenik gabeko *Piarres* izan zen. Arbelbideren ustea da (2007, 24-25. or.) barnealdeko errientak zirela *Le Réveil*-eko idazleetako batzuk, baina ustea besterik ez da.

Hedapen-datu askorik ez dago. Hastapenetan, 600 «errezibizale» zituztela zioen kazetak berak (1887-01-02, «Réveil Basque errezebitzen eta irakurtzen dutener»). Handik bost urtera, milatik gorako tirada omen zuten (1891-11-08, «Avis»). Hortik aurrera, ez dago berririk. Konparazio baterako, *Eskualduna* sorreran 850 alerekin hasi omen zen (Arbelbide, 2007, 27. or.) eta 1.300 saltzen omen zituen 1891n (Laffite, 1971, 26. or.).

1894ko abenduaren 30ekoa da *Le Réveil*-en azken zenbakia. Etena behin-behinekoa zela azaldu zien irakurleei Candauk, frantsesez, eta mantxetaren jabetzari «zutik eta tinko» eusteko asmoa zutela (1894-12-30, «La Nouvelle Année»). Ez zen, ordea, berriro agertu. Handik lau urtera jaio zen *Eskual-Herria-Pays Basque* astekari errepublikazale elebidun berria, *Le Réveil*-en oinordekoa, hamarkada luzea iraungo zuena (1898-1909).

2. Helburua eta metodologia

Le Réveil Basque astekariak euskarazko kazetaritza informatiboari zer ekarpen egin zion aztertzea da lan honen helburua, landutako informazio-generoen eta gai-esparruen ikuspegietatik. XIX. mendeko euskarazko kazetaritza-ekoizpenaren testuinguruan egin da azterketa, *Le Réveil*-en ekarpenaren garrantzia neurtze aldera eta aitzindaria zertan izan zen argitze aldera.

Helburu horrekin, *Le Réveil*-eko euskarazko kazetaritza-testuak hartu dira kontuan, hau da, gaurkotasuneko gaien berri ematen duten idatziak. Ikerketaren eremutik kanpo gelditu dira, beraz, gaurkotasunarekiko loturarik gabeko ezagutzen zabalkundea helburu duten dibulgazioko testuak, literatur sorkuntzako eta gai erlijiosoei buruzko testuak bezala. Kazetaritza-testuen artean ere ez dira guztiak aztertu, xede informatzaileari lehentasuna ematen diotenak baizik. Hau da, gaurkotasuneko gaiei buruz iritzia ematera mugatzen diren testuak ere alde batera utzi dira, gertaeren berri ematea lehentasuntzat duten testuetan jartzeko fokua. Diskurtsoaren analisiaren (Van Dijk, 1990) eta informazio-generoen teoriaren (Martínez Albertos, 1974; Gomis, 2008) argitan aztertu dira testuak.

Aurretik *Le Réveil* aztertu duen ikertzaile baten susmoa izan da ikerketa honen abiapuntua; honakoa adierazi baitzuen Altzibarrek (2008, 35. or.): «Berri larriak, bereziki politika mundukoak, laburki ematean euskal kazetaritzaren historian lehena izan daiteke». Hipotesi hori egiaztatzea izan da, beraz, lanaren xedeetako bat. Horretarako, XIX. mendeko euskarazko kazetaritza-ekoizpena aztertu da: batetik,

gaiari buruzko ikerketen azterketa bibliografikoa egin da, eta, bestetik, euskarazko kazetaritza-testuak argitaratu zituzten hedabideen azterketa hemerografikoa.

Euskarazko kazetaritzaren hastapenei buruzko ikerketa orokorrago baten parte da lan hau. Ikerketa horretan, XIX. mendean euskaraz argitaratu zuten hedabideen azterketa hemerografiko orokorra egin da, informazio-helburuko kazetaritza-testuei arreta berezia jarrita. Aztertu diren hedabideen artean daude *Le Réveil*-en aurretik, eta garai berean, argitaratu zirenak: *Uscal Herrico Gaseta* (1848), *Euskal-Erria* (1880-1918), *Escualdun Gazeta* (1885-1886), *Eskualduna* (1887-1944) eta *California'ko Eskual Herria* (1893-1898). Hedabide hauen guztien bildumak eskuragarri daude hainbat hemeroteca digitaletan: *Uscal Herrico Gaseta*, Frantziako Liburutegi Nazionaleko Gallica zerbitzuan; *Euskal-Erria*, Koldo Mitxelena Kulturunearen Atzoko Prentsa atalean; *Escualdun Gazeta* eta *California'ko Eskual Herria*, Eusko Jaurlaritzaren Liburuklik webgunean; eta *Eskualduna*, besteak beste, Bilketa atarian eta Susa argitaletxearen Armiarma zerbitzuaren Euskal Prentsaren Lanak atalean.

Le Réveil-en bilduma digitalizatua bilketa.eus-en dago eskuragarri, Baionako Udalaren euskal funtsen atari oparoan, Ipar Euskal Herriko beste hedabide eta argitalpen historiko ugariaren bildumen ondoan. *Le Réveil*-ek argitaratu zituen 343 zenbakietatik 15 baino ez dira falta. Azterketa hau egiteko, bildumako zenbaki guztiak arakatu dira.

3. Testuingurua

3.1. Kazetaritza ideologikoaren aroan

Euskarazko kazetaritza bere hastapenetan baldin bazen ere, inguruko hizkuntza indartsuagoetako kazetaritzak urrezko aroa bizitzen ari ziren XIX. mendearen bukaeran. Faktore askoren ondorio zen prentsaren osasun ona: prentsa-askatasuna arautzen zuten legediak lehen baino laxoagoak ziren, oro har; gero eta jende gehiagok zekien irakurtzen; gero eta ale gehiago ekoizteko ahalmena zuten inprimategi gero eta bizkorragoek; gero eta azkarrago garraiatzen zituzten egunkari paketeak trenak eta itsasontziek; gero eta errazago jasotzen eta bidaltzen zituzten hango eta hemengo berriak kazetariak telekomunikazioen garapenari esker, aurrena telegramarekin edo laster telefonoarekin (Schulze, 2004).

Frantzian eta Espainian bezala, Euskal Herrian ere kazetaritza ideologikoa zen nagusi XIX. mendearen bukaeran. Alderdi, sindikatu eta asmo politikoko bestelako eragile ugari argitaratzen zituzten euren berripaperak, eta zabalkunde handiko egunkari nahiz astekari ugari ere helburu politikoak zituzten lehentasun. Garai berean, hala ere, kazetaritza-eredu informatiboagoa ere ari zen garatzen pixkanaka, errentagarritasun ekonomikoa lehentasun zuten hedabide ez hain ideologizatuen eskutik; beste inon baino azkarrago eta indartsuago, AEBn (Paz Rebollo, 1994; Sánchez Aranda, 2004; Stephens, 2007).

Aro oparoa bizi zuen prentsak Euskal Herrian ere. XIX. mendearen bukaeran mugaz iparraldera bizi ziren irakurleek aukeran zituzten, frantsesez jakinez gero,

Le Courrier de Bayonne egunkari kontserbadorea, *L'Avenir des Pyrenees et les Landes* errepublikazalea —astean hirutan argitaratzen zen— edota *La Semaine de Bayonne* astekari katolikoa, baita Pauetik egunero iristen zen *L'Independent des Basses Pyrenees* errepublikazalea eta Bordeletik zetorren *Le Petite Gironde* errepublikazale moderatua ere.

Kazetaritza ogibide eta hedabideak gaitasun handiko sektore ekonomiko bihurtzen ari ziren garaian iritsi zen, beraz, *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* geroxeago bezala. Kazetaritza ideologiko militantea egin zuen ideia eta hautagai errepublikazaleen alde, frantsesezko hedabideetan kazetaritza ideologikoa artean indartsu zegoenean, baina ordurako kazetaritza informatibo profesionala ere bidea egiten hasia zenean.

3.2. Zokoratua, gutxi ikertua

Egindako ekarpenaren aitortzarik ez zitzaion luzaroan iritsi *Le Réveil Basque*-ri. Ikertzaileen artean lehen aipamena Vinsonek egin zion, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* erreferentziazko katalogoan (1891, 399. or.): Berdolyk sortua zela, Paueko Garet inprimategian argitaratua, 1886ko abuztuan jaioa —benetan uztaillean izan bazen ere—, eta, *Eskualduna* bezala, «parte frantsesez, parte euskaraz» argitaratu zela.

Lafittek Vinsonen katalogoari erreferentzia egin zion, 1941ean, Ipar Euskal Herriko euskarazko literaturari eta kazetaritzari buruzko hitzaldi aitzindaria eman zuenean Baionako Euskal Museoa (*Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, liburuxka gisa argitaratua, datarik gabe). Vinsonen bibliografiatik abiatu zen Lafitte, baina beretik ere asko jarri zuen *Eskualduna*-ri buruz aritzeko, bi orri oso eskaini baitzion kazeta *xuriari*. *Le Réveil*-i, ordea, lerro pare bat besterik ez, *Eskualduna* hari erantzunez sortu zela azaltzeko; agerkari «antiklerikala» izan zela zioen, baina ez zioen euskarazko edukiak ere argitaratzen zituenik. Bibliografian, *Eskualduna*-ren bilduma ageri da kontsultatutako iturrien artean, baina *Le Réveil*-en bildumarik ez. Hitzaldi hartan azaldutakoa osatu zuen gerora Jean Hiriart-Urrutiren *Eskualduna*-ko artikulu bildumaren hitzaurrean: *Eskualduna*-ren sorreraren faktore izan zelako egin zion aipamen laburra *Le Réveil*-i, baina oraingoan «parte eskuaraz» zela aitortuta (Lafitte, 1971).

Lafitteren gutxiespenak arrastoa utzi du, eta *Le Réveil*-ek horixe izaten jarraitu zuen urte askoan: *Eskualduna*-ren sorrera eragin zuen aldizkari *gorri* frantsesa. Altzibarren hitzekin esanda (2008, 18. or.), «*Réveil* garai batez apaiz euskalzaleen madarikazio guztiekin zokoratua izan da». Bidegainek ere (2013, 110-111. or.) bere tesian esana du *Le Réveil* ahaztua izango genuela *Eskualduna*-ren sorreraren eragilea izan ez balitz.

Le Réveil-en ekarpen propioaren aitormenik aspaldikoena Diaz Nocirena da (1995, 42. or.), bere tesian idatzia utzi baitzuen «frantsesez eta euskaraz idatzitako lehen astekari iraunkorra» izan zela. Arbelbidek (2007, 24. or.), «euskarari toki on bat eman dion lehena» izatea aitortu dio. Altzibarren iritziz ere (2008, 19. or.) «euskaraz idatzitako testuen kopuru handia» utzi dute *Le Réveil*-en zortzi urteek, eta «irakurri beharreko» aldizkaria da «garai garrantzitsu hura ezagutu nahi bada».

3.3. Frantsesez ez dakitenentzat

Aldizkariak, jaio berritan bere buruaren aurkezpena egin zuenean, aipamen labur bat egin zuen hizkuntzaz: «Egina izanen da pharte bat frantsesez, beste pharte bat euskaraz; entseatuko da mintzatzerat guziek konprenitzeko gizan» (1886-11-14, «Gure irakurzaileri»). Hasiera hartan ez zuen horren zergatiaren argibiderik eman, baina bai handik bost urtera, Parisko gorabehera politikoei buruzko berri batean: «*Réveil Basque* leizen dutenetan asko jende baita frantsesa konprenitzen ez dutenak, iduri zauku on eta nezesario dela hemen euskaraz itzulirik ezar ditzagun ez bada morde Barthouren galdea, bederen morde Ribot ministroak ihardetsi dakona» (1891-02-08, «M. Barthou»). Alegia, ez zuten diputatuaren galdera euskaratzeko lanik hartu, hori frantsesez bazuen irakurleak, baina ministroaren erantzuna, oso hitzaldi luzea izanik ere, euskaraz irakurri ahal izan zuen frantsesik ez zekienak.

Espiritua argi dago: frantsesez ulertzen ez zuen jende asko zegoelako argitaratzen zituen berriak euskaraz ere, betiere lehentasuna frantsesari emanez, bai kokagunez eta bai kopuruz.

Testuen proportzioak bilakaera esanguratsua izan zuen, hala ere: lehenengo urteetan euskarak presentzia handiagoa izan zuen azken urteetan baino. Irizpide-aldaketa suma zitekeen azken urteko albiste batean emandako azalpenak: izan ere, kazetariak zioen bere eginbidea betetzat zuela gertaera handi baten gainean —Sadi Carnot Frantziako presidentearen hilketak, kasu honetan— «bi hitz erranez euskaraz sorlekhuko mintzaya bakarrik ezagutzen ez dutenentzat», eta «debalde» litzatekeela xehetasun gehiago ematea euskaraz, frantsesez leitu ahal izan zituztelako (1894-07-01, «M. Carnot-en heriotzeaz»). Azken zenbakian, 1894ko abenduaren 30ekoan, testu bakar bat argitaratu zen euskaraz, laborarientzako aholkuekin.

4. *Le Réveil Basque*-ren informazio-kazetaritza

4.1. Lehen albisteak

Hasieran kazetaritza gutxi eta propaganda asko egin zuen *Le Réveil*-ek, baina azkar hasi zen argitaratzen, euskaraz ere, kazetaritza informatiboaren kategorian sartzeko moduko testuak. Lehena 1887ko martxokoa da, Italia eta Frantziaren arteko mugaren inguruan izandako lurrikara bati buruz. Informazioa dago eta, berrikuntza, ez dago iritzirik: «Ikhara memento hartan, zoinac ez baitu iraun aldi bakhocht minuta erdibat ere, ikusi dute ixasoa, bat batean beheilitzen metra batez, berehala goititzeko bi metrez» («Lur ikharac», 1887-03-13).

Ordura arte informazio guztiek bazuten osagai ideologikoa. Lurrikararen berriaren zutabe berean zetorren, adibidez, Espainiako erreginaren kontrako atentatu huts eginaren berri: «Bombabat botatu diote, zeina uroski ez baita partitu, lurrerat erortziarekin». Eta, bukaeran, irakaspena: «Horra cer den monarchia! Erregina hilbalute, haur ttikibat Errege. Eta berehala erreboluzione bidebat. Errepublikan berriz, Presidenta hiltzen bada, berehala bertzebat hautatzen dute gambarec, batere nahaskeria bideric gabe» (izenbururik gabe, 1887-03-13).

Lurrikararen albisteaz geroztik, tantaka agertu ziren albisteak —mahatsondoen eritasun berria, soldaduskaren erreforma, pilota-partida baten iragarpena, uztailaren 14ko festa, muga inguruan alemanek soldadu frantses bat atxilotu zutela-eta sortutako gatazka diplomatikoa— eta lekuko kronika laburren bat —prefetak Atharratzera egin-dako bisitaz eta hitzaldiaz—, baina euskarazko segimendu informatiboa merezi izan zuen lehen gertakari handia Frantziako Armadaren maniobra militarrek izan ziren.

4.2. Lehen segimendu informatiboa

1887ko iraila zen. Hamasei urte besterik ez Prusiaren aurkako gerra bukatu zenetik, eta hamalau urte Frantziak derrigorrezko soldadutza ezarri zuenetik; hau da, Ipar Euskal Herriko gazteak Frantziako Armadaren kasernetara joaten hasiak zirenetik. Ez ziren urrutiko kontuak.

«Mobilisazionea» izenburudun lehen testuak gertatzeaz zenaren berri aurreratu zuen: «Zer othe da ba Mobilisazionea? Hori da soldado tropa mobimendu handi bat elgarren gana biltzeko eginan leku batetarat, ikasteko eta ikusteko nola egiten ahal den biltze hori bere abantaila eta makur guztiekin» (1887-09-04). Luzea da artikulua, xehetasunez betea: kontatzen du zenbat hautetsik bozkatu zuten mobilizazioak egitearen alde, zenbatek kontra; zenbateko aurrekontua zuen; eta nola Frantziako herri askotako egunerokoa baldintzatuko zuen, tren-sarea, jendarmeriak eta herriko etxeak lanean ariko zirenez. Informazio asko, eta iritzi gutxi. Tartetxo batean baino ez zen agertu asmo propagandista: «Frantzia guziaren onagatic, ez da sobera pharte batek pekatzea edo sofritzea zombait egunez».

Esku berberak idatzi bide zuen izenburu bereko bigarrena. Idazkera bera, zehatza eta argia, baina propaganda helburu agerikoagoarekin: «Berriric hoberenac» zekartzan, «ordrerik handienez eta guziec uste baino hobeki» egin baitziren soldaduen «heltzeac eta parthitzeac» (1887-09-11).

Hurrengo astean eman zituen esku berak xehetasun informatiboak, kazetari-sena errekuiperatuta. Idazkera biziz josi zuen narrazioa: «Buruilaren 9an, bataila edo egun handia. Denbora bat ezin ederragoa. Bide guzian ikusten dire yendeac multzoka dohazinac manobren ikustera beren yatekuekin» («Mobilisazionea», 1887-09-18). Villasavary herria hartua zuten jeneral baten tropek, eta herria hartzen saiatu behar zuten beste jeneral baten soldaduek. Gerla ministroa ere han zen, eta baten batek entzun zuen ministroak buruzagi militarri esan ziola: «Orai uzten zaitut, mana zazu; egoiten naiz hemen, zeren hau den tokiric hoberena gauzen ongi ikusteko eta yuyatzeko». *Le Réveil*-eko erredaktorea nekez egongo zen han, baina nonbait irakurri zuen hitzez hitz hori esan ziola, eta euskarara ekarri zuen aipua, borrokari buruzko xehetasun guztiak bezala:

Vincendon yeneralac tirarazten du kanoi kolpe bat gerla hastapenaren seinalatzeko, eta goizeko zortzi orenetan chuchen gerla hasten da. Warnet yeneralaren artilleria abiatzen da lehenic, eta han bi yeneralec eta bi armadec egiten dituzte egin ahalac nausitzeko, bai izpirituz edo yakitatez, bai gorphutzez edo indarrez, halaco gisaz non bi dibisioneac hurranduac baitire elgarren gana hamar metrataraino, baioneta kanoiaren phuntan.

Artean lerroburuak ez ziren oso informatiboak izaten, eta hirugarren astean ere izenburu nagusia «Mobilisazionea» zen; baina oraingoan tarteko tituluak zekartzan, lau atal bereizteko: «Maniobrac dibisione bat beste baten kontra», «Gorputz guzia bidian elgarrekin», «Gorputzaren hedatzea etsai bat aitzinean» eta «Errebua».

Le Réveil-ek handik bi urtera eman zuen antzeko maniobren berri, estilo berean. Bi astez eman zituzten berriak, baina artikulua gehiagoren bidez eta izenburu informatiboagoekin: «Manobra handiac» lehen astean (1890-09-21); eta «Norteko manobra handiac», «M. Carnot eta Norteko manobra handiac» eta «Armadaren errebua yaun presidentaz eguina», bigarrean (1890-09-28). Kazetariari ez zitzaion ahaztu, orduan ere, propaganda-helburua: «[Maniobra] Izatu da frogagure harmanendua pare gabekoa dela eta gure soldadoac, munduko tresnaric hoberenarekin, koraiez betheac direla, zerbitzuan gogorki azkartuac eta gerlarat gateko prest lehenbiziko oihuan» (1890-09-21).

4.3. Arlo politikoko lehen informazioak

1887ko abenduan krisian sartu zen Hirugarren Errepublika, Jules Grevy presidenteak dimisioa eman zuenean senide baten ustelkeria kasu baten ondorioz. Ezegonkortasun politiko handiaren erdian, *Le Réveil* eta gainerako hedabide errepublikazaleen zeregina zen egonkortasunaren alde egitea, Errepublikaren iraupenaren aldeko mezuak ematea. Errepublika osasuntsu zegoela eta egoera baretu zela erakusteko bidea, hain zuzen, Sadi Carnot presidente berriaren izendapenez luze eta zabal informatzea izan zen. Gertakizun informatibo handi baten aurrean gaude, eta euskarazko kazetaritzan aitzindariak diren testuen aurrean.

Hautaketa osteko lehen zenbakian, hiru testu informatibo mamitsu argitaratu zituen euskaraz *Le Réveil*-ek. Bereziki azpimarragarria da albiste nagusia, inbestidurari buruzkoa: non (Versailles), noiz (abenduarien 2an, arratsaldeko ordu bietan), nor (diputatuak eta senatariak), zertarako (presidentea izendatzeko) bildu diren kontatu ondoren, bozketen emaitzak. Kontakizunak ez du eztabaida parlamentarioaren berri ematen, baina bozen osteko adierazpenak dakartza aipu zuzenak ere baliatuz, besteak beste presidente berriaren esker oneko hitzak: «Yaunac erremestiatzen zaituztet handizki zuen felizitazionez eta zuen sendimendu onez ene alderat». Estatuburu bat euskaraz, lehenengoz («Errepublikako presidentaren bozkatzea», 1887-12-11). Bigarren artikulua presidente berriaren ibilbidea biltzen zuen («M. Sadi Carnot, nor da? Zer egin du?»), eta hirugarren batek kanpoko prentsaren erreakzioak («Zer dioten bertze nazionec gure presidentaren izendatzeaz»). Lerroburuotan ikusten da gertakari bakar bati ikuspuntu ezberdinetatik begiratzeak ekarri duela aurrerapauso bat tituluen zehaztasunean.

Hurrengo astean, abenduaren 18ko zenbakian, beste hiru artikulua zekartzan euskaraz gaiari buruz. Presidente berriak diputatuen eta senatarien aurrean irakurritako gutunaren berri ematean, zehar estiloan eman zituen kazetariak Carnoten hitzak («Errepublikako presidentak egin letrak bi ganbereri», 1887-12-18), eta estilo zuzena ere tartekatu zuen enbaxadoreekin egindako bilkuraren berri («Errepublikako presidentak»). Edukien aldetik, bereziki interesgarria da

ondoren datorren informazioa, aurreko asteko soslaiaren testu osagarria. Irudi gutxiko kazetaritzaren garaia zen, argazkirik gabekoa. Horregatik, orain baino balio informatibo handiagoa zuten deskribapen fisikoek. Horregatik, *Le Réveil*-eko kazetariak bere irakurleei azaldu zien presidente berria nolakoa zen: «M. Sadi Carnot da gizon mehetto bat, ez handi ez ttipi, bizarra beltz. Burua chuchen dabila, lerden lerdena» (izenbururik gabea).

Hurrengo hiru urteetan, Carnot izan zen *Le Réveil*-eko informazio politikoaren protagonista nagusia, bereziki Frantzia barrena egindako bisita ugariak zirela eta. Bordele, Grenoble, Lyon, Dijon eta beste hainbat lekutara egindako bidaiak bakoitzeko informazio xehetasunez beteak eman zituen euskaraz ere, bereziki agintaldiko lehen hiru urteetan. Prentsa-bulegoen historia geroago hasi zen, komunikazio-arduradunak hurrengo mendean hasi ziren lanean, baina XIX. mendearen bukaerako agintariek antzeko funtzioak betetzen zituzten mekanismo eraginkorrak bazituztela erakusten dute Carnoten bidaien informazioek.

Propaganda-helburu nabarmena dute, eta gertakizunaren aldebakarreko kontakizuna egiten dute, sinesgarritasuna zalantzan jartzearainoko partzialtasunez, baina balio informatiboa ere badute: kronika-estiloko kontakizun bizien bitartez Carnot kalez kale ikusi zuten euskaraz baizik ez zekiten irakurleek ere, agintariz inguratua beti, jendea teiltueta raino ere igota presidentea ikusi ahal izateko, «Biba Carnot!» eginez batzuk, kanoikaden hotsak unearen garrantzia azpimarratzen zuen bitartean. Berriketariak dena beren begiekin ikusi izan balute bezala kontatu zuten, lekuko kronikak eginez, baina pentsatzekoa da kronikak euskarara ekarri zituena bigarren eskutik ari zela, Paueko bulegoan jaso zituen egunkarietatik edanez.

Euskal Herrira ere etorri zen Carnot. 1891ko maiatzaren 23ko eguerdian iritsi zen Baionako tren-geltokira, Pauetik barrena. *Le Réveil*-entzat lehen mailako gertakizuna zela ezagun du presidentea iritsi aurreko zenbakian: azalaren zabalera osoko zutabe bakarrean eta ohi baino askoz letra tipo handiagoan zetozen lerroburua eta testua, euskaraz, bisitaren harira editorial guttiz ideologikoa emateko («Zuberoco, Laphurdico eta Nafarro-behereko Eskualduner», 1891-05-24). Gertakizunaren handia azpimarratzera zetorren hirugarren orrialdea ere: Carnoten erretratuak, marrazkiak, orri osoa hartzen zuen.

Hurrengo asteko zenbakian, ordea, Carnotek Baionan egindako joan-etorrien berriak jaso nahi zituenak ez zuen ezer askorik topatu, euskaraz. Ordurako zerbait gertatua zen *Le Réveil*-eko erredakzioan: baziren hilabete batzuk, 1890eko abendutik hain zuzen ere, bere orrialdeetan euskara guttiz urritu zela, zenbaki batzuetan guttiz desagertzearaino. Euskarazko testuen kalitatea ere asko jaitsi zen. Garai txarrean iritsi zen Carnot Euskal Herrira. Zenbaki hartan, bisitaren gorabehera guztiak frantsesez kontatu zituzten, xehetasun guztiekin. Euskaraz, hogei lerroko testu labur (eta trakets) bat besterik ez, Berdoly diputatuak Carnoti «makhila miragarri» bat eman ziola azaltzeko.

Hurrengo asteko zenbakian euskarazko testu mamitsuago bat zetorren: bisitaren kronika, bertatik bertara jasotako informazioz zuzenean idatzia. Ordura arte, politikalarreko euskarazko berriak bigarren eskutik jasotako informazioetan oinarritutakoak

ziren. Oraingoan, kazetariak berak zioen lehen eskutik ari zela: «Hargatic on da hemen conda dezagun treitu batzu guharen beguiez ikhusi ditugunac, eta ainitz yenderi plazerezco nigarrac beguietara eman dituztenac» («M. Carnot Biarnon eta Eskual Herrian», 1891-06-07). Baina beste guztia frantsesez zetorren.

1893ko abuztura arte egon zen euskara guztiz baztertua *Le Réveil*-en orrialdeetan. Handik aurrera, 1894ko abenduan desagertu bitartean, euskarari leku gehixeago egiten hasi zen berriro, lehen aro oparoko mailara itzuli gabe, hala ere. Garai horretan iritsi zen aspaldiko gertakari handiena: Caserio anarkista italiarrak Carnot presidentea hil zuen Lyonen, labankada batez.

Atlantikoaren bi aldeetako hedabideetan oihartzun berehalakoa izan zuen albisteak, eta segimendu zabala egin zieten egunkari guztiek. *Le Réveil*-eko irakurle euskaldunek, ordea, ez zuten xehetasun askorik topatu; funtsezkoa besterik ez: «Egun goizean, harrituak gelditu gare Eskual-Herri guzian, aditzearekin nola igande atxean Errepublikako Presidenta hil duten, Lyoneko hirian, punela ukhaldi batez». Carnoten lekua hartuko zuenari buruz, esaldi bat besterik ez, letra tamaina handiagoan emana: «M. Casimir-Perier du izena President berriak». Artikulu honetan bertan zetorren euskararen bazterketaren justifikazioa, sorlekuko mintzairaz bi hitz erranez aski zela eta euskaraz xehetasun gehiago ematea debalde zela zioena, frantsesez eman zituzten geroz («M. Carnot-en heriotzeaz», 1894-07-01).

Hurrengo asteetan ere frantsesez zetozen Carnoten heriotzaren osteko informazio gehienak. Uztaileko bigarren zenbakian, ehorzketari buruzko berri laburra besterik ez («M. Carnot-en erhorztzetaz», 1894-07-08). Euskaraz baizik irakurtzen ez zutenek ez zuten hiltzailearen berririk izan: ez haren izenik, ez egin zioten epaiari eta ezarri zioten zigorrari buruz, ez gillotina bidezko exekuzioari buruz. Horri guztiari buruzko informazioa eman zuen *Le Réveil*-ek, baina frantsesez.

Aukera galdu bat izan zen, hedabide garaikideetan ikusten baita Carnoten hilketaren gertakari handiak beste ezerk baino kazetaritza-pieza landuagoak eragin zituela, baita euskaraz ere. Izan ere, *Eskualduna*-k informazio oparoa eman zuen magnizidioaz geroztiko hiru zenbakietan, euskaraz nahiz frantsesez, baina euskarari lehentasuna emanez, eta Caserio anarkista exekutatu zuten artean ere ugariak izan ziren haren inguruko testuak. Are oparoagoa eta kazetari ikuspuntutik aberatsagoa izan zen *California-ko Eskual Herria*-k astez aste euskara hutsez eman zuen informazioa.

4.4. Arlo politikoko informazioak, euskal ikuspuntuarekin

Frantziako Errepublika zen *Le Réveil*-en informazioen lurralde-esparru nagusia, baina Euskal Herritik begiratzen zion esparru horri. Horregatik, Carnoten agintaldiko lehen ministro bati, Charles Floqueti, arreta berezia jarri zion, euskal herritarra baitzen, Donibane Garazin sortua. Haren izendapenez eta ibilbideaz artikulu informatibo mamitsua argitaratu zuen, lehen ministro izendatu zutenean («M. Floquet. Gure Ministroen Presidenta», 1888-04-22), eta jarraipen estua egin zion gero ere agintean iraun zuen hamar hilabeteetan.

Bizi izan zituen gorabehera politiko horien artean deigarriena agintea hartu eta hiru hilabetera bizi izan zuen: eztabaida parlamentarioa gehiegi berotu zen nonbait, eta ezpata-dueluan bukatu zuten lehen ministro baxenabartarrak eta Georges Boulanger oposizio eskuindarreko buruak, 1888ko uztailaren 13an. Egoera horretara nola iritsi ziren ez ezik, ezpata-borroka bera ere xehetasunez kontatu zuen *Le Réveil*-ek euskaraz:

Lehenbiziko kolpean, Floquet izan da arhinki kolpatua ezkerreko zango sagar zolan eta Boulanger ere arhinki esku eskuineko erhi batean. Bigarren kolpean, Floquet izan da oraino arhinki hunkitua esku eskerrian eta eskuineko bulharraren gaineko aldean; Boulanger izan da aldiz seriocki kolpatua lephuan, non errezibitu baitu ezpata kolpe bat bortz edo sei zentimetra barna, zintzurri hurbil, eskuineko phartean («M. Floquet eta Boulanger», 1888-07-22).

Biak bizirik atera ziren, medikuek geldiarazi egin baitzuten duelua Boulangerren zauria larria zela erabaki zutenean, Floquet garaitzat jota.

Handik urte-erdira sendo ageri zen Floquet *Le Réveil*-en orrialdeetan, eztabaida parlamentario batean eskola publikoaren defentsan. Eztabaidaren kontakizuna ez ezik, Floqueten hitzaldiaren bukaerako pasarte luzea ere hitzez hitz eman zuen kazeta errepublikazaleak, estilo zuzenean, 83 lerrotan («Biba Floquet, yende chehearen alde dena!», 1889-01-06). Handik hilabetera, sumatzen zen Floqueten gobernu zailtasunetan sartua zegoela, tituluak justu kontrakoa zioen arren («Ministerioa sekula baino azkarrago», 1889-02-10). Gobernuaren aurkako salaketa larriak egin zirela-eta —diru publikoa «behar ez den gauzetan» erabiltzea, besteak beste—, diputatuen ganberako eztabaidaren bukaeran konfiantza-mozioa bozkatu zuten, eta bizirik atera zen Floqueten gobernu, baina ez alde handiarekin: 302 alde, 240 kontra. Handik astebetara, Floqueten beste hitzartze bati buruzko berria zetorren («M. Floquet mintzatu da biphilki», 1889-02-17).

Azkenean burua makurtu egin behar izan zuen Floquetek, agintean hamar hilabete egin ondoren. *Le Réveil*-en kontakizunaren arabera, Konstituzioaren erreforma bultzatzea hitz emana zuen Floquetek eta, erreforma egitearen aurka bozkatu zuenez diputatuen ganbarak, dimisioa eman zuen. Hara Floqueten hitzak, *Le Réveil*-ek euskaratuak: «Erran nuen egun etsaminatuko ginduela errebisionea, eta ganbarac ez duenaz gainean nahi, erretiratzen gare, zeren gauza bat hitzemanaz geroz, nahi dugu hitza atchiki, eta bagohazi memento berean gure demisionearen ematera Errepublikako presidentari».

Eta informazioaren bukaera, kazetariaren eskutik: «Gan da, bainan ez errepublikako guzien errespetua eta estimua merezitu gabe» (1889-02-24, «M. Floquet eta ministerioa eriora»).

Ugariak izan ziren Parisko diputatuen ganberan izandako eztabaidez *Le Réveil*-ek euskaraz emandako bestelako berriak ere. Mami informatiboagatik eta xehetasun-mailagatik azpimarratzekoa da Louis Etxeberriren hautaketaren baliogabetzeaz diputatuen ganberan egin zuten eztabaidaren kontakizuna: politikari bonapartista eta *Eskualduna*-ren jabea Mauleko barrutian diputatu hautatu zuten 1890eko

hauteskundeetan, hain zuzen ere Berdolyri nagusituta, baina diputatuaren ganberak baliogabetu egin zuen hautaketa, apaizek kanpainan legez kanpoko eragina izan zutela argudiatuta. Hasierak ongi laburbiltzen zuen gero garatutako informazioa:

Urtharrilaren 27an, Mauleko arrondasimenduko deputatuaren bozkatzea berifikatua izan da ganbaraz. Erran ginduen yadanic nola bozkatze hortako paper guziac etsamiatuac izan ziren komisione batez, zoina abiseko izan baitzen hautsia izan behar zuela, zeren ez zen behar zen bezala egin izan. Eh bien! Ganbara ere abisu bereko izan da, eta gure arrondisamenduko deputatuaren bozkatzea hautsia izan da 248 botzez 224 botzen kontra (1890-02-02, «Mauleko bozkatzearen haustea»).

Hurrengo hilean bozak errepikatu ziren, baina emaitza ez zen aldatu: Etxeberri diputatu izendatu zuten azkenean.

4.5. Parisko erakusketa handiaren berri

Le Réveil-eko irakurle euskaldunek 1887ko irailean jakin zuten Parisen erakusketa handi bat antolatzen ari zirela, handik bi urtera Frantziako Iraultzaren bigarren mendeurrena «solanitate eta ponpa guziekin» ospatzeko asmoarekin. Erakusketa horretan, bai frantsesek eta bai atzerritarrek erakutsi ahal izango zituzten «gauzarik ederrenac, kuriosenac, abilenac, espantagarrienac». Eta frantsesek ordurako bazekiten munduari zer erakutsiko zioten: «Parisen ari dire aspaldian tokiaren prestatzen eta burdinazko dorre bat egiten (tour Eiffel), hirur ehun metra gora izanen dena». Erakusketa handira Europa osoko eta Ameriketako bisitariak etorriko omen ziren eta, nola ez, euskaldunak ere bai: «Badire Eskualduna frango yuaitekoac okasione eder hortaz baliatzeko: ez badire orai baliatzen, beldur izaiteko da Parise ikusi gabe yuaren direla bertze mundurat» («1889ko esposizioa Parisen», 1887-09-25).

Handik bi urtera, Parisen zen *Le Réveil*-eko kazetaria. Gutun-formatua eman zion kronikari, eta inicial bidez sinatu: «X.» Bi urte haietan *Le Réveil*-eko irakurle euskaldunek erakusketari eta Eiffel dorrearen eraikitze-prozesuari buruzko informazioa maiz jaso zuten, baina Parisera joan zen kazetariak aitortu zuen ordura arte emandako berri guztiak «bertze gasetetan irakurturic» eman zituztela, baina aldizkarian ordura arte kontatutakoa txiki gelditzen zela orain bere begiekin ikusten ari zenaren aldean: «Harrigarri da hemengo gauza ederren ikhustea: hau ederra, hura manifikoa; hau pollita, hura charmanta; hau drolia, hura irriegangarria». Kazetaria ez zebilen bakarrik:

50 bat Eskualdun gerthatu gare kafe batean, eta gure otelean bagare ehun bat memento huntan: non nahi bada Eskualduna; chinuasac, beltzac eta bertze hanitz yende suertec beren burua erremarkazten badute, Eskualdunac ere laster ezagutuac dire beren languayaz, beren gapeluaz, beren chamarras edo beren makhilaz. (...) Horra beraz nola Parisen gerthatzen naizen, hamar egun hautan, gure etcheke-andere Catalin gaizoarekin, zoinec bere egin ahalak egin baititu familia guzia esposizioenarekin ikhusterat ethortzeko («Esposizioa», 1889-08-18).

X.-ri ez bide zitzaion Eiffel dorrea askorik gustatu. *Le Réveil*-eko irakurleak ere ohartuko ziren ez zuela aipatu ere egin, *esposizione* handiari buruz informazio bat irakurtzen zuten bakoitzean Eiffel dorrearen gorabeheren berri ere izaten oso ohituak baitzeuden. Kasik metroz metro ikusi zuten Eiffel dorrea hazten.

1888ko iraila: «Lanac aitzina dohazi» eta «eginarazle nausiac esperantza du hirur ehun metra gora egina izanen dela urtharrilaren azkeneko» («Berri Zombait», 1888-09-30). Urte bereko abendua: «munduan den gauzaric haltoena» izango da, «guzia burdinaz egina», eta ez du izango «escalerric bainan bai kabina eta mekanika batzu (ascenseurs), zoinen medioz yendeac eremanen baitire goiti eta beheti» («Pariseko esposizionea 1889an», 1888-12-30). 1889ko abendua: ez, eskailerak izan izango ditu, 360 maila hain zuzen, baina eskaileretan gora igotzeko beharko dira «barne ona, zango azkarrac eta bihotza sano»; horregatik, jendeak nahiago izango du ibili goiti eta beheiti «ascenseur mekanikaren medioz, zeina gostako baita 40 sos lehen estaiaraino (minuta batez) eta bortz libera kaskoraino batere unhatu gabe (sei minutaz)» («Pariseko esposizionea 1889an», 1889-01-06). Urte bereko apirila, erakusketa ireki baino hiru aste lehenago: «Eiffel dorrea akabatua da. Haren ondoan teatre izugarri bat eguin dute non sartzea libro izanen baita» («Esposizionea», 1889-04-14). Maiatzeko bigarren astea: «Lurraren gainean, sekulan izan den esposizioneric ederrena idekia izan da Parisen» («Esposizionearen idekitzea», 1889-05-12). Uztail bukaeran: «Eiffel dorrea ere bisitatua da egunean 10, 15, 20 bat mila presunaz» («Esposizionea», 1889-07-28). Hurrengo astean, abuztu hasieran: «La Perse deitzen den erresuma bateko erregea, *le schah*» erakusketa ikustera etorri eta «choratua gelditu da ikustiaz Trocadero illuminatua, ithurriac ere orobat, bai eta Eiffel dorrea» («Errege bat esposizionean», 1889-08-11). Eta azaroan, erakusketa handia bukatu berritan: «Eiffel dorrea, machinetako galeria, eta bertze zonbait kontserbatuac izanen dire», ez dituzte lekuz aldatuko, «zeren phena handia liteken holako gauza ederren eta baliozen barreatzea» («Azken hitza gure esposizione ederraz», 1889-11-17).

Eskualduna-ren irakurleek ez zuten 1789ko iraultzaren mendeurrena ospatzera zetorren dorreari buruzko hainbeste berri jaso eta, jaso zutenean, bestelako enkoadraketa baten barruan jaso zuten dorrearen irudia. Horren adibide, dorreari buruzko lehen berria, eraikuntza-lanak bukatzeaz zirenekoa: «Kuriostasunez so egiteko zerbait balio du; bertze gainean ez da pollita» («Choses et autres», 1889-03-01). Eta handik gutxira, dorrea jada bukatua, plazaratu zutena: «Bainan yender ez baitzakote batere ederra, bakharrik begistatzen ahal dute munstro handi eta izigarri bat bezala» («Erreboluzionearen mende bethetzea», 1889-05-17). Baina, egia baldin bada irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, *Eskualduna*-k azkenean merezi zuen garrantzia eman zion Eiffel jaunaren asmakizunari, handik gutxira aldizkariaren azalean dorrearen marrazkia argitaratu baitzuten, eraikinari buruzko xehetasun tekniko ugari ematen zituen euskarazko testuaz lagundurik, inolako iritzi gutxieslerik gehitu gabe: «Potret hunek edo imaya hunek erakusten daku...» («La Tour Eiffel», 1889-06-14).

4.6. Arlo judizialeko lehen informazioak

Euskarazko prentsan pederastia-kasu baten berria eman zuen lehena izan zen *Le Réveil*. Ez ziren albiste landuak izan, baina berriak eman egin zituzten, euskaraz, Frantziako hedabide *gorri* askok frantsesez bezala. Lehen informazioa 1888ko irailekoa da:

St-Medard eta Citeaux deitzen diren tokietan badire bi eskola zoinetan fraide batzuec hartzen eta altchatzen baitituzte haur itsuac eta elkor-mutuac. Duela zombait egun, yakina izan da eskola horietan egiten zela zikinkeria frango, eta fraide zombait izan dire preso hartuac; bertze batzu eskapatu izan dire («Berri zombait», 1888-09-09).

«Zikinkeria franko», beraz, beste zehaztasunik gabe. Baina *Le Réveil*-eko irakurle euskaldunek jakin zuten, interpretatu zuten, fraide haien sexu-abusuak jasan zituztela eskola haietako haurrek. Dijoneko *Le Petit Bourguignon* egunkariaren irakurleek ere hori bera jakin zuten, baina zehaztasun gehiagorekin, bi lekuetako bat, Citeaux, egunkariaren hiritik gertu egonik, arreta handiagoa eskaini baitzioten afera hari. *Le Réveil*-ek «zikinkeria franko» esan zuen lekuan, Dijoneko egunkariak «orgia higuingarriak» gertatu zirela zioen epaiketa aurretik («Les scandales de la colonie de Cîteaux», 1888-06-29), eta «ukitu lizunak» eta «pederastia ekintzak» egin zituztela, epaiketaren ondoren («Les Frères de Citeaux en Cour d'Assises», 1888-12-07).

Epaiketaren eta kondenaren berri eman zuen *Le Réveil*-ek ere, euskaraz: «Badire zazpi fraide gaztigatuac izan direnac. Gutienic punituac izan du 3 hilabeteren presondegia eta ogendun handienac 2 urthe». Artikulu informatiboa zen, baina iritzizko ukituarekin, bukaeran:

Gobernamenduac, ikhustearekin zer lohikeriac igaran diren garbitasuna baizic behar ez litaken tokian, yuyatu du ez zela gehiago utzi behar holako eskola zarric, eta ezari ditu fraideac bi eskola hetaric kampo. Yende onest eta behar den bezalako guziac erranen dute arras ongi egin duela gobernamenduac ez uztea gehiago otsoa ardi zain («Otsoa ardi zain», 1888-10-28).

Le Réveil eta *Eskualduna*-ren arteko beste xextra baterako gaia ere izan zen auzi hau. *Eskualduna*-k ez zuen Citeaux eta St-Medarden gertatuen berririk eman, baina bitan behintzat aipatu zuen auzia, frantsesez, lehenengoan *Le Réveil* horretan ere gezurretan ari zela ohartarazteko («Les menteurs», 1888-10-12), eta bigarrenean, akusazioak «infamia» hutsa zirela eta kongregazioa desegiteko erabakia «franmazonen kolpea» izan zela adierazteko («L'infamie», 1888-10-26). Litekeena da hurrengo urtean ere *Eskualduna*-k gaiari antzeko beste aipamenen bat egitea, *Le Réveil*-ek erantzun egin baitzion, bidenabar beste kasu baten berri ere emanez:

Horra gure arrapostua Eskual-herriko gaseta churiari, zoinac izan baitu bekhokia erraiteko gezurrac zirela guc erran guziac gauza horien gainean. Oraino ere fresko freskoa erranen diogu orai; bertze eskola Trappé de Soligny deitzen den batean phasatu diren zikhinkeriac eta kondenatuac: fraide bat sei hilabete preso, bigarrena bi urthe eta hirugarren bat izan da arras libratua seren ez zen aski segur frogatua ogendun zela («Ez utz otsoa ardi zain», 1889-03-03).

Beste erlijioso bat akusatuen aulkian eserarazi zuen guztiz bestelako auzi batek ere aurrez aurre jarri zituen Euskal Herriko kazeta *gorria* eta *xuria*. Kasu honetan, Orzaizeko erretorea epaitu zuten, pulpitutik Errepublikako gobernuaren kontra aritzea leporatuta. Aita Agorreka ezaguna zen ordurako, lau urte lehenago ere zigortu egin baitzuten, Estatuak apaizei eman ohi zien ordainsaria kenduta, antzeko auziren bategatik.

Oraingoan, *Eskualduna*-k kazetaria bidali zuen propio Donapaleura epaiketako bi auzi-saioak jarraitzera —ez zen batere ohikoa—, eta azal osoa ez ezik, bigarren orrialdearen zati bat ere eskaini zion kazetariak bertatik bertara ikusi eta entzundakoaren kronikari. Auzi-saio bati buruzko euskarazko lehenengo zuzeneko kronika da. Kazeta *xuriko* berriketariak, gainera, bere kronikaren hasieran aipatzen du kazeta *gorri* bateko kazetaria ere han zela: «Yende oste handi batez bethea zen audientziako sala eta mahain behech batean ari zen izkribatzen Paubeko gazeta errepublikano baten egilea» («Orzaizeko yaun ertora Donapaleuko tribunalean», 1889-11-22).

Ez zen *Le Réveil*-eko berriemailea. Artikulu informatibo luzea argitaratu zuen euskaraz kazeta *gorriak* ere, baina ezagun du ez zela bertatik bertako kronika, erredakzioan idatzitakoa zela. Donapaleura joan zena *Le Réveil*-en inprimategi berean argitaratzen zen egunkariko kazetaria zen, *L'Independent*-ekoa, bertan argitaratutako kronikaren sarreran hala adierazi baitzuen egunkariak berak: «Un de nos redacteurs, M. Bonnard, s'est transporté a St. Palais pour assister au débats de l'affaire Agorreca» («Affaire Agorreca, curé d'Osses», 1889-11-17/18). *Le Réveil*-eko informazioa, nabarmen, *L'Independent*-en artikulu xeheagoaren moldaketa da.

Espero izatekoa zenez, prentsa *gorriaren* irakurleek epaiketari buruz jaso zuten kontakizunaren oso bestelakoa jaso zuten prentsa *xuriaren* irakurleek. Funtsean, *Le Réveil*-en kronika irakurri zutenek xehetasun askorekin jakin zuten akusazioaren hamabost lekukoek zer esan zuten, eta azken hiru lerroak irakurri jakin zuten defentsako lekukoek ezer interesgarririk ez zutela esan («M. Agorreca, Orzaizeko erretoraren afera», 1889-11-24). *Eskualduna*-ren irakurleek, aldiz, jakin zuten akusazioaren lekukoek «bata bertzea baino nahasiagoac» izan zirela, eta, defentsako lekukoei entzun ondoren, inori ez zitziola «dudaric ttipiena ere» gelditu erretorearen inozentziaren gainean. Mami informatibo handiko artikuluak ziren bata zein bestea, baina oso ikuspegi jakinetik idatziak, eta iritzizko pasarte ugarikoak.

Handik bi astera, epaiaren berri frantsesez baino ez zuen eman *Eskualduna*-k. *Le Réveil*-ek, frantsesez ez ezik, euskaraz ere bai: «Ehun libera amanda eta gastuac bertzalde; horra zer izan den Orzaizeko yaun erretorari Donapaleuko tribunalac eman duen gaztigua» (1889-12-08, «Orzaizeko erretoraren kondenazionea»). Hor bukatu zen euskal prentsak inoiz jasotako lehen epaiketaren segimendu informatiboa.

Handik gutxira ere, urte bereko abenduaren 20an, kazetariak berriro Donapaleuko auzitegian ziren, *gorrien* eta *xurien* arteko beste aurrez aurreko baten lekuko izateko. Oraingoan, *gorriak* ziren akusatuak: Mauleko suprefeta eta Urepeleko errienta. Aldudeko eta Urepeleko herritarrek azukrea, kafea, olioia eta mugaren beste aldetik zetozen beste produktu batzuen zergak ez ordaintzeko eskubidea zuten orduan

eta, Louis Etxeberry hautagai eskuindarrak salatu zuenez, eskuinari bozkatzuz gero pribilegio hori galdu egingo zutela esan zieten herritarrei bi akusatuek. Orzaizeko erretorearen defentsa-abokatua zen orain akusatzaile, eta hedabide berberetik bidali zituzten berriemaileak Donapaleura: *Eskualduna* eta *L'Independent*. Berrero, *Le Réveil*-ek euskaraz luze informatu zuen auzi-gelan gertatu zenaz—eta absolutioaz—, *L'Independent*-ek frantsesez argitaratutakoan oinarrituta («Tribunalaz akitatua Mauleko jaun su-prefeta eta Urepeleko jaun errieta», 1889-12-29); *Eskualduna*-k, aldiz, frantsesez egin zuen kronika oraingoan.

Informazio judiziala ziren, zentzu batean bederen, exekuzioak ere. Garai hartan ez ziren gutxitan gertatzen, eta hedabideek arreta eskaintzen zieten. *Le Réveil*-en argitaratu zen exekuzio bati buruzko euskarazko lehen kontakizuna ere. Informatiboa da kontakizuna, iritzirik gabea: Parisen gillotinatuta zutela, soldadua zela, 80 urteko andre bat hiltzeagatik kondenatu zutela, kartzelako zuzendariak jakinarazi ziola exekutatu egingo zutela goiz hartan, kondenatuak erantzun ziola kuraiatz egingo ziola aurre heriotzari, protestantea izaki bisitan joan zitzaion artzainarekin otoitz egin zuela... Eta azken lerroetan: «Burreuac hartzen du eta ematen du taularen gainean. Guillotinako ganibeta erortzen da, lephoa phikatzen dio eta horra non yustizia egina den» («Guillotinatzete bat Parisen», 1888-09-30).

Ez zuen *Le Réveil*-ek euskaraz beste exekuzio askoren berririk eman, handik aurrerako gehienak frantsesez eman baitzituen, baina *Eskualduna*-n ere aurki daitezke antzekoak, urte gutxi batzuk geroago, eta are ugariagoak—eta xehetasun handiagokoak— *California'ko Eskual Herria*-n, 1893an sortu zenetik.

4.7. Aurreneko Maiatzaren Lehenaren berri

Le Réveil Basque gorria zen, baina ez gorri-gorria. Bereizketa hori behin baino gehiagotan egin zuen politikako informazioetan: errepublikanoak ziren, monarkiaren kontrakoak, baina gobernuaren aldekoak, ordenazaleak. Horregatik, Maiatzaren Lehenaren lehen oihartzunak iritsi zirenean euskarazko prentsara, zortzi orduko lanaldiaren eske kalera atera ziren langileek ez zuten *Le Réveil*-en laguntasunik izan. 1890ean irten ziren lehen aldiz langileak kalera Maiatzaren Lehenean, hamar hilabete lehenago II. Internazional sozialistaren batzar eratzazalean egindako deialdiari erantzunez, eta lehenengo aldi haren berri jaso zuen, euskaraz, *Le Réveil*-ek.

Kazeta gorriak azalean argitaratutako albisteak ongi jaso zuen Maiatzaren Lehenaren espiritua: «Europako langile guziaz hitzartuak ziren behar zutela maiatzaren lehenean, Europako hiri handi guzietan, guzietatik etxeratu eta galdegin egun bakotcheke lana zortzi ornetara gutitua izatea eta bertzerik». Mobilizatu zirenen artean baziren batzuk «ideia gachtoric batere ez zutenak». Baina baziren bestelakoak ere, Parisen behintzat: «Arratsaldeko lau ornetatik ondoren, karrika batean agertzen dire mila bat gizon ganibet edo makilaz armatuak eta manatuak gizon hainkail batez, zintura gorri bat guerriari». Ez zen ongi bukatu, *Le Réveil*-ek euskaraz xehetasunez kontatu zuenez: polizia, zalditeria, ezpatak airean... azkenean, ehun bat kolpatu, hirurehun atxilotu. Ondorioa, ordea, zorionekoa *Le Réveil*-en ikuspegitik: «Horra beraz nola turrut egin duen Europa guziko langile zar

zonbaitec egin gei zuten altchatzeac gobernamentu guzian kontra» («Turrut egin du», 1890-05-11).

Hurrengo hiru urteetan *Le Réveil*-ek ez zuen Langilearen Egunaren berririk eman, ez euskaraz ez frantsesez, eta bere aldizkariaren bizialdiaren azken urtean, 1894an, frantsesez bakarrik, labur. *Eskualduna*-k, aldiz, lehen urtean ez ezik, hurrengoetan ere jarri zion arreta Maiatzaren Lehenari. 1890ekoan azaleko artikulua nagusia eskaini zion («Zortzi oren laneko», 1890-05-09), eta berri laburragoak eman zituen hurrengoetan.

4.8. Tokiko informazioa, frantsesez

Le Réveil Basque-k herriz herriko informazioa ere ematen zuen astero, *Pays Basque* atalean, tokian tokiko kolaboratzaileek idatzitako testu estiloz heterogeneoen bidez, baina frantsesez ziren gehienak. Aste gehienetan, euskarazko berriak noizean behingo salbuespenak besterik ez ziren.

Azken aroko zenbaki jakin batzuetan, hain zuzen ere 1894ko udazkeneko hainbatetan, euskarak ohi baino presentzia handiagoa izan zuen tokiko informazioaren atalean: irailaren 16koan lautik bi izan ziren euskaraz (Uztaritzetik eta Orzaizetik bidaliak), urriaren 21ekoan zazpitik bost (Miarrizetik bi, eta bana Baionatik, Bidaxunetik eta Peyrehoradetik), 28koan bederatzitik lau (Baionatik hiru eta Orzaizetik bat) eta azaroaren 4koan hirutik bi (Senperetik eta Hendaiatik). Gehienak gertakari zehatzei buruzko albisteak ziren —lapurretak, istripuak, suizidio bat, hileta bat...—, egile ezberdinek idatziak zirelarik oso estilo ezberdinean onduak, estilo erretorikoan batzuetan eta kazetari sen handiagoz beste batzuetan.

Eskualduna-n ere tokian tokiko ataka argitaratzen zuten astero eta, hasierako urte haietan, mendearen bukaerara arte behintzat, frantsesezko informazioak ugariagoak ziren euskarazkoak baino kazeta *xurian* ere. Hala ere, euskarazkoak ez ziren salbuespen bakanak: aste askotan frantsesez bakarrik ziren arren, aste gehienetan euskarazko tokiko berriren bat edo beste argitaratzen zuten, batzuetan gehiago ere bai, eta oso noizbait frantsesez baino gehiago. Euskarazko tokiko kazetaritzaren hastapenen nondik norakoak ikertzekotan, *Eskualduna*-ren hemeroteka dago aztertu beharra, ez hainbeste *Le Réveil*-ena.

5. Ondorioak

5.1. Hiru aro

Zortzi urte eta erdiko ibilbidean argitaratutako 434 zenbakietan, 1.736 orrialdeetan, euskarazko kazetaritza-testuen ondare aberatsa utzi zuen *Le Réveil Basque*-k. Ibilbide osoan frantsesez gehiago argitaratu zuen euskaraz baino, baina bere bizialdiko lehen lau urte eta erdian euskarazko kazetaritza-testu ugari argitaratu zituen, nahiz eta azken lau urteetan ez zen gauza bera gertatu. Zenbaki guztien azterketa egin ondoren ondoriozta daiteke *Le Réveil*-ek hiru aro izan zituela hizkuntzen erabilerearen ikuspegitik.

Lehen aroan, 1886ko sorreratik 1890eko azarora bitartekoan, euskarak presentzia handia izan zuen, laurdena edo gehiago argitaratzen zen euskaraz, eta kalitatezko informazioa eskaintzen zuen, kalitatezko idazkeran, bereziki Frantziako gertaera politiko nagusiei buruz.

Bigarren aroan, 1890eko abendutik 1893ko uztaile artekoan, euskarazko kazetaritza ia desagertu egin zen *Le Réveil*-en orrialdeetatik. Zenbaki gehienetan agertzen zen zerbait euskaraz, baina oso gutxi zen beti zerbait hori. Noizbait, 1890eko abenduaren 14ko zenbakian esate batera, lerro bakar bat ere ez zuten argitaratu euskaraz aldizkari osoan. Gainera, euskarazko testuen kalitatea asko jaitsi zen, bai idazkeraren aldetik eta bai kazetaritzaren ikuspegitik. Trakets idatzitako testu nahasiak, informazio argirik ematen ez zutenak askotan.

Hirugarren eta azken aroan, 1893ko abuztutik 1894ko abendu-bukaera artekoan, euskarazko testuak ugaritu egin ziren berriro eta idazkeraren kalitatean gora ere egin zuten, baina lehen aroko oparotasunera eta mailara iritsi gabe. Astean bizpahiru testu euskaraz, batez beste, hogeitik gora testuren artean.

Aro desberdinak gorabehera, euskararen presentziak gora egin izan zuen hainbat aldiz hauteskunde-atarietan, bai barruko orrialdeetan eta, bai, bereziki, azalean. Hirugarren aroaren abiapuntuan ere hauteskundeak zeuden, Berdoly bera hautagai zela. Kanpaina-giro horretan ugaritu egin ziren euskarazko testuak, beste kanpaina batzuen testuinguruan bezalatsu.

5.2. Ekarpn nagusia

Le Réveil Frantziako Errepublikaren eta errepublikazaleen tresna zen, kazetaritza guztiz ideologikoa nagusi zen garaian. Eta Errepublikaren tresna zelako eta Errepublikaren dohainen berri eman nahi zuelako hain zuzen ere, Errepublikaren instituzioen eta haien agintarien gorabeheren berri ugari eman zuen, baita askotan molde erabat informatiboan ere.

Le Réveil-en euskarazko testuak irakurriz, Frantziako Hirugarren Errepublikako gorabehera politikoen jarraipena egin zitekeen aldizkariaren bizialdiko lehen lau urte eta erdian. Informazio horien lurralde-esparrua Frantzia izan ohi zen, eta euskal herrialdeak barnebiltzen zituen Departamenduko eta udaletako politikagintzari ez zion arretarik jarri, ez behintzat euskarazko testuetan, ez baldin bazen hauteskunde-kanpainetan propaganda egiteko edota hauteskunde-emaitzen berri emateko, maila informatiboan interes handirik ez zuten testu guztiz ideologikoen bidez. Baina Parisko gorabehera politikoei euskal ikuspegiarekin ere begiratu zien, Euskal Herritik joandako hautetsiek eta agintariek zer esana eman zutenean, hala nola Floquet gobernuburu izan zen garaian eta Etxeberri diputatuaren hautaketa baliogabetu zutenean.

Gai politikoen segimendu informatiboa euskaraz egiten lehena izan zen, ez *Eskualduna* baino hilabete batzuk lehenago jaio zelako bakarrik. Izan ere, *Le Réveil* politikagintzari buruzko kazetaritza informatiboa egiten hasi zenerako *Eskualduna* ere jaioa zen. Baina hasierako *Eskualduna*-k ez zuen politikari buruzko

berri informatiborik ematen. Errepublikaren instituzioetan gertatzen zirenek eta Errepublikako agintariek esaten zituztenek ez zuten lehen urteetako *Eskualduna*-ren arreta merezi izan. Politikaren arloan hauteskunde-lehiarekin lotutako propaganda-dukiek zuten lehentasun osoa, eta nekez topa zitezkeen kazetaritza ideologikoaren estilotik kanpoko testu informatiboagoak. Tantaka agertzen zen zerbait, baina urte haietako *Eskualduna* irakurritz ez zegoen Errepublikako gorabehera politikoei buruzko segimendua egiterik, *Le Réveil* irakurritz egin zitezkeen bezala, euskaraz bakarrik jakinda ere.

Geroago, 1892. urtearen bukaeratik aurrera, *Eskualduna* Frantziako politikagintzari arreta informatibo handiagoa jartzen hasi zen, Errepublikari buruzko ikuspuntu guztiz kritikoaren eraginez estiloa gehienetan oso erretorikoa eta iritzizkoa zen arren, mami informatiboaren kaltetan. Geroztik, arlo politikoari buruzko euskarazko kazetaritzaren erreferentzia bihurtu zen *Eskualduna*, *Le Réveil* aitzindarian euskarazko testuak asko urritu baitziren. Gorago ikusi dugu: Carnot presidentearen inbestiduraz eta beraren agintaldiaren lehen hiru urteez euskaraz nola informatu zen aztertu nahi duenak *Le Réveil*-en hemerrotekara jo behar du; Carnoten hilketaren euskarazko berriak aztertzeke, aldiz, *Eskualduna*-ren eta *California*'ko *Eskual Herria*-ren hemerroteketara jo beharko du.

Arlo judizialeko informazioaren lanketan, aldiz, *Le Réveil* eta *Eskualduna* aldi berean hasi ziren. Epaiketa baten jarraipen informatiboa 1889ko azaroan egin zuten lehenengoz bi aldizkariak, Orzaizeko apaiza epaitu zutenean. *Eskualduna*-k bertatik bertako kronika egin zuen, kazetari euskalduna epaitegira berriemaile gisa bidalita, eta *Le Réveil*-ek bere egunkari aliatuko, *L'Independent*-eko, berriemaileak frantsesez idatzitakoa euskarara moldatuta. Arlo judiziala ez zen geroztik ez bataren ez bestearen indargune izan, baina Orzaizeko apaizarena ez zen salbuespen izan; handik gutxira, bi errient errepublikazalaren epaiketari buruz antzeko jarraipena egin zuen *Le Réveil*-ek, eta auzitegietako berri laburragoak ere eman izan zituzten bi aldizkariak euskaraz, frantsesezkoak ugariagoak ziren arren.

Iritzi-generoak ez ezik, informazio-generoak ere landu zituen *Le Réveil*-ek. Informazioa eta iritzia nahasten zituzten testu ugari argitaratu zituen, garai hartako kazetaritza ideologikoan ohikoa zen moldean, baina mami informatiboak lehentasun osoa zuen albiste ugari ere plazaratu zituen, batzuetan iritzi-kutsu txikiarekin eta beste batzuetan iritzirik gabeak, informazioak emateko ikuspegiaren Errepublikaren aldeko jarrera beti presente zegoen arren.

Informazio-generoen artean, albisteak argitaratu zituen gehienbat; albiste labor ugari, eta albiste luze eta landu esanguratsu zenbait. Nabarmentzekoa da gertakari handi batzuei egindako segimendu informatiboa, hala nola Frantziako Armadaren maniobra militar berezietan eta Sadi Carnot presidentearen izendapenez eta agintaldiaz: gertakari bakarrari buruz hainbat ikuspegitatik modu iraunkor batean informazioa eman zuen, eta horretarako formatu luzeko albiste landuak baliatu zituen, ordura arte euskaraz inork egin ez zuen eran.

Kronika-moldeko testuak ere argitaratu zituen *Le Réveil*-ek. Gehienetan, ezagun zuen bigarren eskutik idatzitakoak zirela; hau da, gertaerak zuzenean ikusi eta

jatorrizko testua frantsesez idatzi zuenaren moldaketa plazaratu zuela euskaraz *Le Réveil*-ek. Jatorriz euskaraz idatzitako kronika gutxi batzuk badira, hala ere: besteak beste, 1890eko Erakusketa Handiaz Parisetik idatzitakoa eta Carnotek 1891n Baionara egindako bisitari buruz ondutakoa.

Honenbestez, baieztatu daiteke albisteak eta kronikak euskaraz ere argitaratu zituen informazio orokorreko lehen hedabidea izan zela *Le Réveil Basque*, oso iraupen laburra izan zuten aldizkariak alde batera uzten baditugu. Kazetaritza politikoa izan zen bere indargunea eta, ezertan aitzindaria izan bazen, horretan izan zen: arlo politikoko kazetaritza informatiboa euskaraz lantzen.

6. Erreferentziak

- Altzibar, Xabier (2008). *Réveil Basque* astekari errepublikano elebiduna (1886-1894). *Iker/Euskaltzaindia*, 21, 17-39.
- Arbelbide, Xipri (2007). *Xuri-gorriak*, Elkar.
- Bidegain, Eneko (2013). Lehen mundo gerra *Eskualduna* astekarian. *Iker/Euskaltzaindia*, 30, 1-617.
- California'ko Eskual Herria* (1893-1898). Liburuklik, Ondare Bibliografiko Digitalizatua. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/28840>
- Díaz Noci, Javier (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Eusko Ikaskuntza.
- Eskualdun Gazeta* (1885-1886). Liburuklik, Ondare Bibliografiko Digitalizatua. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/28841>
- Eskualduna* (1887-1944). Armiarma, Euskal Prentsaren Lanak. <https://www.hemeroketa.eus/argi.htm>
- Euskal-Erria. Revista Vascongada* (1880-1918). Koldo Mitxelena Kulturunea, Atzoko Prentsa. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAtzokoPrentsaWEB/argitalpen/178878>
- Gomis, Lorenzo (2008). *Teoría de los géneros periodísticos*. UOC Press.
- Lafitte, Piarres (datarik gabe). *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule. Conférence donnée au Musée Basque de Bayonne le 3 avril 1941*. Aitzina.
- Lafitte, Piarres (1971). Aintzin-solasa. In Jean Hiriart-Urruty, *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* (13-42. or.). Jakin.
- Le Réveil Basque* (1886-1894). Bilketa, Euskal Funtsen Ataria. <https://www.bilketa.eus/ark:/27020/bi00008>
- Martínez Albertos, José Luis (1974). *Curso general de redacción periodística*. Mitre.
- Paz Rebollo, María Antonia (1994). El periodismo en Francia. In Alejandro Pizarroso (argtz.), *Historia de la prensa* (185-196. or.). Editorial Centro de Estudios Ramón Areces.
- Sánchez Aranda, José Javier (2004). Evolución de la prensa en los principales países occidentales. In Carlos Barrera (argtz.), *Historia del periodismo universal* (77-117. or.). Grupo Planeta (GBS).
- Stephens, Mitchell (2007). *A history of news*. Oxford University Press.
- Schulze, Ingrid (2004). La prensa escrita en los principales países occidentales. In Carlos Barrera (argtz.), *Historia del periodismo universal* (169-228. or.). Grupo Planeta (GBS).

- Uscal Herrico Gaseta* (1848). Bibliothèque Nationale de France, Gallica. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k6266264t#>
- Van Dijk, Teun A. (1990). *La noticia como discurso. Comprensión, estructura y producción de la información*. Paidós.
- Vinson, Julien (1891). *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. J. Maissonneuve.